

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa
2. Sektorea:	Lexiko espezializatuaren nahiz lexiko orokorraren esparruan lan egiten duen irabazi-asmorik gabeko erakundea da UZEI. Euskaltzaindiaren erakunde atxikia da, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Laguntzailea.
3. Langile kopurua:	13
4. Webgunea:	https://www.uzei.eus/
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Erakundeak honako jardute-arlo nagusi ditu: hiztegitzinta, itzulpengintza eta hizkuntza naturalaren prozesamenduan oinarritutako I+G+b.</p> <p>Euskarazko lexiko teknikoaren normalizazioan erreferentea da; beste ekimen batzuen artean, <i>Euskaltermen</i> sortzailea da, eta, gaur egun, terminologia-banku publikoa dena kudeatzen du.</p> <p>Lexiko orokorraren arloan, Euskaltzaindiarekin lankidetzan estuan dihardu, eta <i>Sinonimoen Hiztegia</i> edo <i>Atzekoz Aurrera Hiztegia</i> eskaintzen ditu sarean, beste lan batzuen artean.</p> <p>Itzulpengintza-zerbitzu aurreratuak eskaintzen ditu, eta, teknologia propioa erabiliz, egiaztatzaile automatikoak egin ditu euskararentzat (hobelex.eus zuzentzailea eta IDITE egiaztatzaile profesionala).</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Imanol Urbieta Sorarrain
Helbide elektronikoa:	iurbieta@uzei.eus
Telefonoa:	943 47 33 77

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Pilulen bidezko trebakuntza linguistikoa
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Bi ardatz ditu ekimen honek:</p> <p>a) Hizkuntza lanabes duen erakundea izanik, goi-mailako ezagutza linguistikoa dute lantaldeko kide gehienek, baina garrantzitsua da gurea bezalako diziplinarteko erakundebatean profil tekniko guztiek (informatikan ingeniariak, profil administratiboak eta kudeatzaileak, barne) ezagutza linguistikoa sakona izatea.</p> <p>Horrek lantaldearen barruan interakzio aberatsagoak sortzen ditu, eta proiektu eta garapen berriak irudikatzea errazten du, besteak beste.</p> <p>Hori dela eta, aldiro-aldiro trebakuntza-pilulak prestatzen eta banatzen ditugu lantalde osoaren artean, ahal den neurrian, gaurkotasunarekin lotutako gaiak aitzakiatzat hartuz.</p> <p>Pilula horiek formatu anitzekoak dira, batzuk besteak baino osatuagoak, eta, gehienetan, irudiak erabiliz prestatuak.</p> <p>Trebakuntza-pilulek oso ekarpen aberasgarria egin dute diziplinarteko lantaldeak ikuspegi linguistikoa bateratuagoa izan dezan. Batetik, hizkuntzalari-profila ez duten lankideen sena linguistikoa areagotzeko baliagarria izan dira. Bestetik, ekimen horren harira, gaurkotasunarekin lotutako gaien inguruan hedabideetan erabiltzen den lexikoa behatzen dute hizkuntza-teknikariek, eta, UZEIren datu-base lexikoak eguneratzeko edo aztergai berriak identifikatzeko informazio baliagarria eskuratzen dute horrela.</p> <p>b) Bestalde, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea helburutzat duen erakundea izanik (hala dago jaso UZEIren estatutuetan), ezinbestekoa da lan-arlo guztietan hizkera inklusiboa eta genero-ikuspegia txertatzea. Horregatik, berdintasunaren eta aniztasunaren ikuspegiarekin bat datorren hizkuntza-erabilera sustatzeko baliatzen dira hizkuntzaren inguruko pilulak.</p> <p>Horrela, oinarrizko kontzeptuak eta terminoak argitzeko, ohiko akatsak zuzentzeko eta, oro har, darabilgun hizkerak berdintasunaren printzipioak islatzeko duen garrantziaz ohartarazteko oso lagungarriak izan daitezkeela egiaztatu dugu.</p>

Trebakuntza-pilula: 2020-03-31

Gaur Pertsona Transgeneroen Ikusgaitasunaren Nazioarteko Eguna da, eta horren harira mezu bat jarri dugu sare sozialetan:



Terminoak argitze aldera, gogoratu honela definitzen dituela Euskaltermek pertsona transgeneroak eta pertsona transexualak:

trans

Gizarte-ongizatea - Feminismoa eta Berdintasuna - Generoa eta sexua

eu iz. **transgenero** (4) 
iz. **trans** (4) 

Definizioa

Jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion generoarekin identifikatzen ez den pertsona.

es transgénero
trans



fr transgenre
trans

en transgender
trans

[Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia] [2020]

trans

Gizarte-ongizatea - Feminismoa eta Berdintasuna - Generoa eta sexua

eu iz. **transsexual** (4) 
iz. **trans** (4) 

Definizioa

Jaiotzean ezaugarri biologikoen arabera esleitu zaion generoarekin aurkakoarekin identifikatzen den pertsona transgeneroa.

es transexual

fr transsexuel

en transsexual

[Feminismoa eta Berdintasuna Hiztegia] [2020]

Gogoan izan behar da, azkenik, horrelakoetan **ikusgaitasunaz** hitz egiten dugula, eta ez **ikusgarritasunaz**.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

«Tximino-batzanga», erdal *monkeypox* terminoaren euskal ordaina

Hedabideek zabaldu berri duten [albistearen](#) arabera, gure artean ohikoa ez den batzanga-mota bat detektatu zuten atzo Madrilen.

Egunotan hizketagai izango dugula ematen duenez, oinarrizko argibide batzuk prestatu ditugu.

Gaixotasun horri **tximino-batzanga** esaten zaio euskaraz, eta horrela jaso dugu *Euskaltermeko Gaixotasunak Hiztegian* (ikus beherago atzo sare sozialetan jarri genuen fitxa). Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, batzangaren antzeko sintomak ditu, baina arinagoak.

Zer da batzanga?

Gizakiak txertoen bidez desagerrarazi duen lehen gaixotasun infekziosoa da **batzanga**; Osasunaren Mundu Erakundeak 1980. urtean desagertutzat eman zuen. Euskaraz baditu beste izendapen batzuk ere (**nafarreri** eta **pikota Ipar.**), baina hizkera teknikoan gehiago erabili izan da **batzanga** forma.

Euskaltzaindiaren Hiztegiak dioenez, **batzanga-pikatua** esamoldea erabil daiteke 'batzangak jotako pertsona' adierazteko.

Tximino-batzanga edo *monkeypox*?

Garai batean, gaixotasun hori izendatzeko ingelesezko *monkeypox* erabiltzen zen beste hizkuntza batzuetan ere, baina azken urteotan tokian tokiko formak nagusitu dira ingelesezko maileguaren ordeztan (fr *variole du singe*; es *viruela de los monos*). Bide beretik, euskaraz ere nagusitu den **tximino-batzanga** ordain egokia da gaixotasun hori izendatzeko.

Beste batzanga-mota batzuk

Ortopoxbirus batek eragiten du, eta genero horretakoak dira **behi-batzanga** eta **zaldi-batzanga** eragiten dituzten birusak ere. Tximino-batzanga eta behi-batzanga animalietatik gizakietara pasatzen diren gaixotasun infekziosoak dira. Horrelako gaixotasunei **zoonosi** esaten zaie (ez **zoonosis*).

Azkenik, batzanga ez da nahasi behar **astanafarreri** izeneko gaixotasunarekin. **Barizela** sinonimoa ere erabiltzen da 'astanafarreria' izendatzeko (es *varicela*; fr *varicelle*), baina forma hori ez da oraingoz iritsi hiztegi arauemailera.

Hona hemen atzo sare sozialetan jarri genuen mezua:



UZEI @UZEI_ · 23 h

📖 Madrilen ustezko kasu batzuk detektatu omen dituztela eta albiste denez, «tximino-baztanga» sarrera hautatu dugu Gaixotasunak Hiztegitik. labur.eus/tximino-baztan...
#euskara #terminologia



eu tximino-baztanga
es viruela de los monos
fr variole du singe
en monkeypox

#terminologia

ALT

[Gaixotasunak Hiztegia] [2015]

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA